



2019-12-13

PRENTSA-OHARRA

## OIONGO LIBURU ETA KULTUR AZOKA, ELKARBIZITZA ONAREN ADIBIDE ARABAKO ERRIOXAN

Ramiro de Maeztu eskolak Oiongo 1. Azoka antolatu du EHIGE eta Denon Eskola federazioaren laguntzarekin. Oiongo eskola publikoko ikasleez, irakasleez eta familiez gain, Lantziego, Eltziego, Guardiako Samaniego institutua eta San Bizente ikastolako ikasle eta familiak bildu dira Oiongo liburu eta kultur azokan, Arabako Errioxako bi hezkuntza-sareen elkarbizitza onaren adibide.

Hamaika ekintzaz beteriko programaz gozatu dugu Ramiro de Maeztu eskolan, besteak beste, ikasleen lanak zituzten 15 stand eta Elkar argitaletxeko standak egon dira Oionen. Elisa Rueda, Amaia Bermudez, Edurne Maiona, Antton Arrieta eta Joxe Mari Iturralde idazleak hurbildu dira azokara, eta liburuak erosteko eta trukatzeko aukera ere egon da. Izaskun Mujika ipuin kontalariak eta Adur Larrea marrazkilariak babes eman diote azokari.

Musika ere ez da falta izan Oionen. ETS taldeko kide den Iñigo Etxezarretak, Xatiro raperoak, Oiongo Abesbatzak, Tristan Mourguyk eta Kometa taldeko Andoni Bonafauk erritmoa jarri diote gaurko egunari.

Bestalde, Euskal Eskola Publikoaren Jaiak ere lekua izan du Oiongo azokan, izan ere, ekainaren 7an Bastidan ospatuko den 29. Euskal Eskola Publikoaren Jaiko materiala erosteko aukera egon da.

NOTA DE PRENSA

## MERCADO DEL LIBRO Y LA CULTURA DE OION: EJEMPLO DE BUENA CONVIVENCIA EN RIOJA ALAVESA

La escuela pública Ramiro de Maeztu ha organizado el 1º Mercado de Oyón con la colaboración de EHIGE y Denon Eskola. Además del alumnado, el profesorado y las familias de esta escuela pública, también han participado en el mercado del libro y la cultura las escuelas públicas de Lanciego, Elciego y el instituto Samaniego de Laguardia, así como el alumnado y las familias de la ikastola San Bizente de Oyón, un ejemplo de buena convivencia entre las dos redes educativas de Rioja Alavesa.

El mercado ha estado repleto de actividades. La escuela Ramiro de Maeztu ha acogido 15 stands con trabajos de los alumnos y las alumnas, así como un stand de la editorial Elkar. Los escritores y escritoras Elisa Rueda, Amaia Bermudez, Edurne Maiona, Antton Arrieta y Joxe Mari Iturralde se han acercado al mercado. El público asistente ha tenido la oportunidad tanto de comprar como de intercambiar libros. También han apoyado el mercado la cuenta cuentos Izaskun Mujika y el dibujante Adur Larrea.

La música también ha estado presente en Oyón. Iñigo Etxezarreta (ETS), Xatiro, el Coro de Oyón, Tristan Mourgu y Andoni Bonafau (Kometa) se han encargado de poner ritmo al mercado.

La Fiesta de la Escuela Pública también ha estado presente en el mercado, con un stand para comprar el material de la 29. edición que se celebrará el 7 de junio en Labastida.

[www.euskaleskolapublikoarenjaia.eus](http://www.euskaleskolapublikoarenjaia.eus)